

IKASTETXEA	GARRALDA INSTITUTUA		
IZENBURUA	“TXIZA EZTABAIDAGAI”	MAILA	DBH-1
IRAKASLEA	Maite Pérez de Ciriza, Camino Echagüe, Maritxu Etxeberria	IKASGAIA	EUSKARA

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

## 1. ATAZA

### TESTUA

#### TXIZA EZTABAIDAGAI

---

Koldo Aldabe  
[Kaldabe@berri.Info](mailto:Kaldabe@berri.Info)

---

Aztarna ekologikorik txikiena uztea, bereziki hori eskatzen diete talde ekologistek herritarrei ingurumenaren alde hondar alea jartzeko.

Autoa etxean utzi eta oinez, bizikletan edo garraio publikoan mugitzea. Kontsumo urriko bonbillak eta etxetresna elektrikoak erabiltzea, plastikozko poltsak alboratzea – negozioa egiteko saltoki handien proposamen berritua-...

Brasilen egunotan beste proposamen bat egin dute: txiza dutxan egitea. Alegia, goizeko txiza eta dutxa batera egitea. Urtean pertsona bakoitzak 4.000 litro ur aurreztu ditzake, eta, ustea bestelakoa bada ere, adituek diote ez dela nardagarria, txizaren %95 ura baita, eta gainontzekoa, gatz mineralak, urea eta substantzia diluituak.

Aholkua telebista iragarki batek egin die brasildarrei, eta helburua lortu du: ez baitzen jendeak dutxan txiza egitea, aztarna ekologikoa gutxitzeko eztabaida ohiko elkarrizketetan txertatzea baizik.

Egilea: Koldo Aldabe [kaldabe@berria.info](mailto:kaldabe@berria.info)  
 Iturria: *Berria* egunkaria. 2009ko irailaren 24a, osteguna

<b>JATORRIA</b>	
EGILEA	Koldo Aldabe – kaldabe@berria.info
IZENBURUA	Txiza eztabaidagai
ARGITALETXEA/Webgunea	Berria Egunkaria
URTEA	2009-09-24
ORRIALDEA (K)	5
ISBN	
<b>TESTU-MOTA</b>	
OINARRIA	Inprimakia
FORMATOA	Jarraia
MOTA	Argudio testua
ERABILERA	Pribatua

## ESTRATEGIAK

### IRAKURRI BAINO LEHEN

#### Irakurri aurretik hipotesiak egitea:

Izenburua kontuan hartuta, txizari buruz zer nolako testua ote den pentsatu

Testua irakurri baino lehenago, ikasleen ustez testua nondik hartu den erabaki:

- Aldizkari batetik
- Internetetik
- Testu liburu batetik
- Egunkari batetik

#### Aurretiko ezagutzak aktibatzea lexikoaren inguruan:

Aurretiko hitz eta esaera batzuen esanahia landu: aztarna, talde ekologistek, hondar alea jarri, urria, alboratu, nardagarri.

#### OHARRAK

### IRAKURRI BITARTEAN

**Informazio garrantzitsua markatzeko estrategia materialak.** Ingurumena zaintzeko gure eguneroko bizimoduan egiteko ematen diren aholkuak azpimarratu.

**Laburbiltze partzialak egitea:** Paragrafo bakoitzaren alboan ideia nagusia adierazten duen esaldi bat idaztea.

**Nork bere buruari galderak egitea irakurtzen ari denaren gainean:** Testuan, pertsona bakoitzak zenbat litro ur aurrezten ahal duen dutxan txiza egiten badu esaten da. Mundu mailan eta ekologian, horrela egiteak eragin handia izanen duen pentsatu.

**OHARRAK** Horrekin ikasleen arreta helburua dagoen lekura eramatea lortuko litzateke, informazio hori ere azkeneko paragrafoan baitago.

## **IRAKURRI ONDOREN**

**Nork bere buruari galderak egitea irakurtzen ari denaren gainean:** Hausnartuko dute idazleak esandako honekin ados dauden.

**Informazio garrantzitsua markatzeko estrategia materialak:** Azpimarratu nork egiten duen proposamen bat, zein den proposamen hori, non (bai lekua, bai bitartekoa) eta noiz egin duten.

**Testua berriz irakurtzea testuaren helburua antzemateko:** testuak dio, testualki, "...eta helburua lortu du: ez baitzen jendeak dutxan txiza egitea, aztarna ekologikoa gutxitzeko eztabaida ohiko elkarrizketetan txertatzea baizik".

**OHARRAK**